

DBH 1 eta 2

AURRE EZAGUTZA AKTIBATU!

**Bisitan etorri aurretik ikastetxean ondokoa egitea gomendatzen dugu.
Irakaslearentzako gidoia.**

Euskararen Etxera etorri aurretik garrantzitsua iruditzen zaigu landuko dugun gaia martxan jartzea, hemen ikusiko dutena pixka bat jakin dezaten. Hori dela eta, Kahoot plataformaren bitartez galdetegi bat erantzun beharko dute euskal kulturari buruz.

- **IRAUPENA:** 45-60'minutu
- **IRAKASLEARENTZAKO AZALPENAK:**

Azaldu ikasleei zein den ariketaren helburua. Banaka jar itzazu ordenagailu edo chromebook batekin. Ikasleek ez badute ordenagailu bana, ariketa bikoteka egin daiteke.

Kahoot! lehiaketan aritu: <https://labur.eus/46neM>

Bukatutakoan, jarri ikasleak talde txikietan. Eman 5 minutu beraien artean erantzun dutena komentatzeko eta alderatzeko. Lagungarriak izan daitezkeen galderak: Zenbat galdera asmatu dituzue? Zenbat huts egin? Zergatik? Ezagutzen zenituzten pertsonaiak euskaldunak ala erdaldunak dira?

- **BEHARRAK:** Ordenagailuak ikasleentzako